

Gure harremana pertsonala izango da, zuzenean elkartuko gara bezeroekin. Gure helburua familiei laguntzea denez, uste dugu egokiena zuzenean beraiekin hitz egitea dela. Institutuan elkartuko gara bezeroekin eta bakoitzaren egoera ezagutzeko aukera izango dugu, modu pertsonalean. Institutuan gela bat edukiko dugu bertan bezeroekin elkartu ahal izateko, email eta telefono bidez ere edozein duda argituko dugu, baina harreman pertsonal eta zuzena eduki nahi dugulako.

Behin bezeroekin hitz egin dugula, laguntza pertsonala eskainiko diegu, bakoitzaren egoera ezagututa behar duena ematen ahaleginduko gara. Agian guraso batek denbora gehiago behar du ordaindu ahal izateko, edo zatika ordaintzeko beharra du, kasu horretan guk egin daitekeen hausnartuko dugu eta berari ikusi dugun aukera esango diogu.

Hasieran, institutuan bertan informazioa helaraziko dugu eta horretaz gain email bat bidaliko dugu gure zerbitzuaren informazioa emanaz, bertan izena emateko aukerarekin. Gainera, lehenengo bilera bat egingo dugu institutuko zuzendariarekin gure proiektua aurrera nola eramango dugun azaldu eta guk institutuari eskainiko dioguna azaltzeko, horrela berarekin ere koordinatu eta zuzeneko harremana edukitzeko, ondoren interesatuta dauden familiekin hitz egitera joango gara institutura, emailen emandako informazioa hobeto azaltzeko eta beraiekin edukiko dugun harreman zuzenari hasiera emateko.

Bestalde, laguntza pertsonala enpresako ordezkari batek eskainiko die bezeroei, hortaz arduratzen den ordezkari bat izango dugu, hortaz arduratuko dena.

Gu izango gara zuzenean bezeroekin komunikatuko garenak.

Guretzat, bezeroekiko harremana oso garrantzitsua izango da, harreman ahalik eta pertsonalena eta zuzenena edukitzen ahaleginduko gara.